

Euskal AEko administrazio publikoen baliabide ez-finantzarioek % 2,1 egin zuten gora 2014an

Finantziario-beharrak % 0,1 egin zuten behera aurreko urteari dagokionez

Euskal AEn diharduten administrazio publikoen (euskal administrazioak, Estatuko Administrazio lurraldetua eta Gizarte Segurantzaren lurraldetua) multzo bateratuak 24.317 milioi euro kudeatu zituen 2014an baliabide ez-finantzarioetan, iaz baino % 2,1 gehiago, Eustatek landutako datuen arabera.

1. taula: Euskal AEko Herri Administrazioen baliabide-enplegu ez-finantzarioak (milaka euro). 2014

	2014	2014/2013 (%)
Finantzazkoak ez diren baliabideak	24.316.552	2,1
Merkatuko ekoizpena eta azken erabilera propioarentzako ekoizpena	876.561	-16,7
Merkatukoa ez den produkzioaren ziozko ordainketak	570.170	162,8
Ekoizpen eta inportazio zergak (kobratzekoak)	7.458.636	8,3
Jabetzaren errentak	250.274	-12,9
Errenta, ondare eta abarren gaineko zergak	6.208.982	1,4
Gizarte-kotizazioak	7.974.847	0,5
Bestelako transferentzia arruntak	909.462	-25,5
Kapitalzergak (kobratzekoak)	191.322	-36,1
Inbertsiorako laguntzak (kobratzekoak)	82.458	1,8
Bestelako kapital-transferentziak (kobratzekoak) (1)	-206.160	-28,4
Finantzazkoak ez diren erabilerak	26.170.925	1,9
Soldatuen ordainketa	6.527.802	1,7
Bitarteko kontsumoa	3.410.081	0,8
Dirulaguntzak (ordaintzekoak)	423.798	-6,5
Produkzioaren gaineko beste zerga batzuk	30.358	-12,6
Jabetzaren errentak	401.172	25,6
Errentaren gaineko zerga arruntak (ordaintzekoak)	0	-
Espezieko gizarte-transferentziak ez diren gizarte-prestazioak	10.638.481	0,7
Gauzazko gizarte-transferentziak Merkatuan erositako ekoizpena	1.995.079	2,1
Bestelako transferentzia arruntak	661.809	16,7
Kapital Eraketa Gordina	1.519.573	-2,2
Kapitaltransferentziak (ordaintzekoak)	547.535	34,7
Ezfinantzario aktibo ez ekoizten erosteko garbiak	15.237	31,3
Aurrezki garbia	-539.832	-7,5
Finantzatzeko ahalmena(+) beharrezana(-)	-1.854.374	-0,1

(1) Barne ditu nekez lortuko den diru-bilketagatiko kapital-transferentziak


Iturriak: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010

Baliabide ez-finantzarioetan honakoak dira kontu-sail esanguratsuenak: gizarte-kotizazioak (baliabideen % 32,8), ekoizpenaren eta inportazioen gaineko zergak (% 30,7) eta errentaren, ondarearen eta abarren gaineko zergak (%25,5). Aurreko urteari dagokionez, ekoizpenaren eta inportazioen gaineko zergek egin zuten gora gehien, % 8,3, alegia, eta ondoren errentaren, ondarearen eta abarren gaineko zergek, % 1,4, eta gizarte-kotizazioek, % 0,5.

Erabilera ez-finantzarioak 26.171 milioi eurora iritsi ziren, eta hori 2013an baino % 1,9 gehiago da. Horien artean nabarmendu behar da gizarte-prestazioen eta gizarte-transferentzien batura, gastuaren % 48,3 dena eta aurreko urteari dagokionez % 0,9 egin zuena gora. Soldatuen ordainsariaren eta bitarteko kontsumoaren baturak, % 38,0 denak, % 1,4 egin zuen gora. Bestalde, kapital-eraketa gordinak, gastuaren % 5,8 izan zenak, % 2,2 egin zuen behera 2013ari dagokionez.

Baliabide eta erabilera ez-finantzarioen arteko saldoak 1.854 milioi euroko finantzaketa-beharra suposatzen du 2014an, 2013an izandakoa baino % 0,1 txikiagoa, eta BPGren % 2,8an mantentzen da.

1. grafikoa. Euskal AEko Herri Administrazioen finantzaketa beharren bilakaera



Iturria: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010

Erakundeak aztertuz, Euskal Autonomia Erkidegoan Estatuko Administrazio lurraldetuaren finantziario-ahalmena 613 milioi eurokoa izan zen 2014an, hau da, 2013an baino % 17,6 txikiagoa, eta Gizarte Segurantza lurraldetuarena 2.060 milioi eurokoa, 2013an baino % 0,11 txikiagoa.

2. taula: Euskal AEko herri administrazioen aurrezki garbia eta finantza-gaitasuna (+) edo finantza-beharra (-) (milaka euro). 2014

	Finantzazkoak ez diren baliabideak	Finantzazkoak ez diren erabilerak	Aurrezki garbia	Finantzatzeko ahalmena(+) beharrezana(-)
Herri Administrazioak	24.316.552	26.170.925	-539.832	-1.854.374
Estatuaren administrazioa + Gizarte Segurantzaren Lurralderatua	10.092.182	11.539.579	-1.099.202	-1.447.397
Estatuaren administrazioa Lurralderatua	2.294.348	1.681.728	947.012	612.620
Gizarte Segurantzaren Lurralderatua	7.800.280	9.860.297	-2.046.214	-2.060.017
Euskal administrazioak	16.264.791	16.671.768	559.370	-406.977
Eusko Jaurlaritza	9.502.164	10.139.509	-158.999	-637.345
Araba/Álava	2.452.121	2.419.755	49.521	32.366
Bizkaia	7.899.258	7.799.362	532.771	99.896
Gipuzkoa	4.988.949	4.890.842	136.077	98.107

Sartutako erakundeak, ikusi ohar metodologikoa 2014

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010

Euskal Administrazioei dagokienez, finantziario-beharra 2013an 538 milioikoa izan zen eta 2014an 407 milioikoa, hau da, saldoak 131 milioitan egin zuen onera. Eusko Jaurlaritzaren mende dauden erakundeek 113 milioi eurotan murriztu zuten finantziario-beharra, eta 637 milioi eurokoa izan zen 2014an.

Arabako foru- eta udal-administrazioek 2013an 8 milioiko saldo negatiboa izan zuten eta 2014an 32 milioiko saldo positiboa; Bizkaiko administrazioetan 100 milioi euroko saldo positiboa izan zen (2013an baino 13 milioi gutxiago); eta Gipuzkoan ere saldo positiboa 10 milioitan jaitsi zen, eta 2014an 98 milioikoa izan zen.

3. taula. Herri administrazioen azken eskaria. Euskal AE (milaka euro). 2011-2014

	2011	%	2012	%	2013	%	2014	%
Herri administrazioen azken kontsumoko gastua	11.798.770	83,8	11.295.409	86,2	11.128.539	87,7	11.216.772	88,1
Herri administrazioen kapital finkoaren eraketa gordina	2.276.731	16,2	1.811.098	13,8	1.554.269	12,3	1.519.573	11,9
Barne eskari publikoa	14.075.501	100,0	13.106.507	100,0	12.682.808	100,0	12.736.345	100,0

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010

Administrazio publikoen amaierako gastuaren egituraren, kapital-eraketa gordina % 12,3 izan zen 2013an eta % 11,9 2014an, eta azken kontsumoaren gastuak, hau da, administrazioek ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenean egindako gastuaren eta merkatuko ekoizleek etxetara hornitzeko ekoiztiko ondasunak eta zerbitzuak (gauzak gizarte-transferentziak) eskuratzeko gastuaren baturak, parte-hartze handiagoa du, eta 2013ko % 87,7tik 2014ko % 88,1era pasatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Administrazio publikoen kontuak. Prentsa-ohar gehiago

Administrazio publikoen kontuak. Datu-bankua